



**16/2020 TXOSTENA, ABENDUAREN 2KOA, KONTRATAZIO
PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN BATZORDE
IRAUNKORRARENA.**

**XEDEA: DEKRETU-PROIEKTUA, SEGURTASUN SAILAREN EGITURA
ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA EZARTZEN DUENA.**

I.- AURREKARIAK.

18/2020 Dekretuak, irailaren 6koak, lehendakariarenak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioeko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, honako hau ezartzen du 5. artikuluan:

1.- Honako eginkizun eta jarduera-esparru hauek dagozkio Segurtasun Sailari:

- a) Autonomia-erkidegoko polizia.*
- b) Herritarren segurtasuna.*
- c) Hauteskunde-administrazioa.*
- d) Babes zibila eta larrialdiei aurre egitea.*
- e) Trafikoa eta bide-segurtasuna.*
- f) Jokoa, apustuak eta ikuskizunak.*
- g) Segurtasun-arloko transmisioak eta komunikazioak.*
- h) Poliziaren ibilgailuak.*
- i) Meteorologia.*
- j) Sailari atxikita dauden edo haren mendeko diren sektore publikoko entitateak zuzentzea, legeek eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera.*
- k) Legeek eta erregelamenduek eman ahal dizkioten gainerako ahalmenak.*

2.- Sail honi atxikitzen zaio «Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia» administrazio-erakunde autonomoa.



Beraz, dagokion dekretu-proiektua egitea sustatu da, Segurtasun Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko, eta horren bidez, 5. artikulua horretan esleitutako esparruei dagozkien eginkizunak gauzatu ahal izateko.

Segurtasun Sailak eskaera bat egin zuen 2020ko azaroaren 16an, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honek dekretu-proiektuari buruzko txostena egin zezan.

Espediente hori Tramitaguneraren —prozedurak elektronikoki izapidetzeko aplikazio informatikoaren— bidez izapidetu zen, DNCG_DEC_108730/20_02 erreferentziarekin, eta honako agiri hauek jasotzen ditu:

- Dekretu-proiektuaren testua.
- Azalpen-memoria.
- Memoria ekonomikoa.
- Txosten juridikoa.

II.- ESKUMENA.

Txosten hau Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eman behar du, nahitaez, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoak (aurrerantzean, 116/2016 Dekretua), 27. artikulua a) letraren 1. apartatuan ezarritakoari jarraikiz; izan ere, xedapen orokor bat da, eta xedapen orokor horren edukiak kontratazio publikoaren eremuari eragiten dio partzialki, eta Gobernu Kontseiluari dagokio hura onartzea.

Bestetik, eta 116/2016 Dekretuaren 30. artikulua 2. apartatuaren a) letraren arabera, Aholku Batzordeak duen aholkularitza-eginkizuna, egitura organikoak eta funtzionalak arautzeari dagokionez, Batzorde Iraunkorrak beteko du.

Irismenari dagokionez, txosten honetan sektore publikoko kontratuen araubide organiko eta juridikoari eragiten dioten dekretu-proiektuaren esparruak jasotzen dira soilik; izan ere, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honek kontratazio publikoaren gaineko eskumenak ditu bakarrik. Horiek horrela, honako hauek aztertuko dira:



III.- KONTRATAZIOAREN ARLOAREKIN LOTUTAKO ESPARRUAK:

Ondoren, proiektuan jasotako esparru guztiak transkribatuko dira:

"6. artikulua Zuzendaritzak.

[...]

i. Zuzendaritzaren jarduketa-eremuetan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak inplementatzea eta horien jarraipena egitea, besteak beste: itzulpen-irizpideak, langileen etengabeko prestakuntza orokorra, izendapen ofizialak eta sailak antolatutako ekitaldi publikoak. Era berean, dagokionean, hizkuntza-irizpideak txertatuko ditu kontratazio administratiboan eta dirulaguntzen deialdietan.

[...]»

"9. artikulua Administrazioko eta Zerbitzuetako Sailburuordetza

[...]

1.- Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzari dagokio, Segurtasun Sailari esleitutako eskumenen esparruan, sail horretako zerbitzu komunak zuzendu eta koordinatzea, eta, bereziki, honako hauek:

Arlo ekonomikoa, aurrekontuak, ondareak eta kontratazioak kudeatzea.

[...]

2.- Horretarako, 5. artikuluan jasotako eginkizun orokorrez gain, honako hauek dagozkio:

[...]



EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA

Junta Asesora de Contratación Pública

d) *Kontratazio-organo gisa jardutea eta sailaren gastuak baimentzea, eginkizun horiek Gobernu Kontseiluari edo saileko beste organo batzuei esleituta ez daudenean.*

[...]»

"10. artikulua *Kudeaketa Ekonomikoaren eta Baliabide Orokorren Zuzendaritza*

1.- *Kudeaketa Ekonomikoaren eta Baliabide Orokorren Zuzendaritzak ekonomia-, aurrekontu-, kontratazio- eta ondare-administrazioaren gaineko erantzukizun osoa du, eta horretarako, dagozkion informazio-, etengabeko ebaluazio- eta jarraipen-sistemak ezartzen eta mantentzen ditu. Hain zuzen ere, honako eginkizun hauek beteko ditu:*

[...]

3.- *Kontratazioaren arloan*

- a) *Kontratazio-espeditenteak izapidetzea eta bitarteko propioei enkarguak egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontrataziorako araudian aurreikusitako baldintzetan.*
- b) *Administrazio-kontratazioarekin zerikusia duten beste gai batzuei buruzko txostena egitea, nahitaezko txosten juridikoa behar dutenean.*

[...]

5.- *Kudeaketa Ekonomikoaren eta Baliabide Orokorren zuzendariari dagokio Sailari dagozkion eta 300.000 euro gainditzen ez duten gastuak baimentzea, bai eta Sailaren kontratazio-organoari dagozkion ahalmenak gauzatzea ere, zenbateko hori gainditzen ez duen oinarrizko lizitazio-aurrekontua duten espeditenteetan."*

6.i artikulua ezartzen duenaren arabera, eta hizkuntza-irizpideak txertatzeko eskumena gauzatzeari dagokionez, « kontratazio administratiboa »-ren ordez « kontratazio publikoa » jarri behar da, eta berariaz aipatu behar da Gobernu Kontseiluak 2016ko apirilaren 26an onartutako Akordioaren jarraibide eta printzipioen arabera garatu behar dela eskumen hori. Akordio horren bidez, hainbat



EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

Kontratazio Publikoaren Aholku Batzardea

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA

Junta Asesora de Contratación Pública

printzipio orokor ezartzeko jarraibideak onartzen dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak, sektore publikoko kontratuen legeriaren esparruko kontratazioaren barruan, euskara erabili eta ezagutu dezan. Txosten honen xedea ez bada ere, kontuan hartu behar da jarraibide horiek zehaztu egin behar direla; izan ere, hizkuntza-klausulak ezin dira jaso exijitzen diren kaudimen teknikoko betekizunen barruan.

116/2016 Dekretuaren 6. artikulua hau xedatzen du: « *Administrazio Orokorrean, hura osatzen duten sailen titularrak izango dira kontratazio-organoak; [...], salbu eta egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretuetan horri buruzko berariazko beste aurreikuspenen bat jasotzen bada [...] ».*

Ahalmen hori baliatuz, dekretu-proiektuak honako aurreikuspen hauek ditu:

- 10.5 artikulua Kudeaketa Ekonomikoaren eta Baliabide Orokorren Zuzendaritzako titularri esleitzen dizkio kontratazio-organoari dagozkion ahalmenak, 300.000 euroko kopurua gainditzen ez duten oinarrizko lizitazio-aurrekontua duten espedienteetan.
- 9.2.d) artikulua xedatzen duenaren arabera, Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzari dagokio kontratazio-organo gisa jardutea eginkizun hori Gobernu Kontseiluari edo Saileko beste organo batzuei esleituta ez dagoenean, eta hori hala zehazten da 300.000 eurotik gorako oinarrizko lizitazio-aurrekontua duten kontratu guztietan.

Bi artikulua horiek zentzu berean hitz egiten dute eta kopuruen muga berberak ezartzen dituzte Sailaren gastuak baimentzeko ahalmenari dagokionez.

Aurrekoa kontuan harturik, Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzako titularri dagokio Sailaren 300.000 eurotik gorako gastuak baimentzeko eskumena; hala ere, ikus daitekeenaren arabera, pertsona horri ez zaio berariaz esleitu zenbateko hori gainditzen duten enkarguak bitarteko propioei egiteko eskumena, 116/2016 Dekretuaren IV. tituluan aurreikusitako baldintzetan (baldintza horiek dekretu-proiektuan berariaz jasota egotea gomendatzen da).

9.2.d) artikuluan ezartzen denari dagokionez, Sailaren gastuak baimentzea eta kontratazio-organoari dagozkion ahalmenak gauzatzea egiturazko unitate bati



EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA
Junta Asesora de Contratación Pública

dagokio (Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordetzari), baldin eta hori gauzatzea organo pertsonalizatu bati badagokio beti (sailburuordeari, kasu honetan); ondorioz, d) letraren edukia artikuluko beste apartatu batera eramatea gomendatzen dugu, eta honela idatzita geratuko litzateke:

« Administrazioaren eta Zerbitzuen Sailburuordetzako titularrari dagokio Sailaren 300.000 eurotik gorako gastuak baimentzea, bai eta Sailaren kontratazio-organuari dagozkion ahalmenak gauzatzea ere, zenbateko hori gainditzen duen oinarritzko lizitazio-aurrekontua duten espedienteetan. »

Era berean, eta baldintza berberetan, bitarteko propio pertsonifikatuei 300.000 eurotik gorako enkarguak egiteko eskumena dagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kontratazio-araubidea arautzen duen araudian aurreikusitako baldintzetan. »

10.3.a) artikulua ezartzen duenaren arabera, bitarteko propioei enkarguak egiteko ahalmena egitura-unitate bati dagokio (Kudeaketa Ekonomikoaren eta Baliabide Orokorren Zuzendaritzari), baina ahalmen hori gauzatzea organo pertsonalizatu bati dagokio beti (zuzendariari, kasu honetan). Hori dela eta, a) letraren eduki hori 10. artikulua 5. apartatuaren barruko beste apartatu batera aldatzea gomendatzen dugu, eta honela geratuko litzateke idatzita:

« Kudeaketa Ekonomikoaren eta Baliabide Orokorren Zuzendaritzako titularrari dagokio Sailari dagozkion eta 300.000 euro gainditzen ez duten gastuak baimentzea, bai eta Sailaren kontratazio-organuari dagozkion ahalmenak gauzatzea ere, zenbateko hori gainditzen ez duen oinarritzko lizitazio-aurrekontua duten espedienteetan. »

Era berean, eta baldintza berberetan, 300.000 euro gainditzen ez duten enkarguak bitarteko propio pertsonifikatuei egiteko eskumena dagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kontratazio-araubidea arautzen duen araudian aurreikusitako baldintzetan. »

10.3.b) artikuluari dagokionez, "kontratazio administratiboa" kendu eta "kontratazio publikoa" jarri behar da.



Kontuan hartuta esandakoa, **ALDEKO TXOSTENA** ematen zaio Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektuari, betiere dekretu-proiektu horren edukia txosten honetan emandako gidalerroen eta aholkuen arabera egokitzen bada.